



BURUKO HURA NORK EGIN ZION JAKIN NAHI ZUEN SATORTXOA



LIBURUAREN FITXA

Werner Holzwarth / Wolf Erlbruch. *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*. Kalandraka, 1999

AURKEZPENA

Satortxoaren istorioa ezagutzen dugun helduoi irribarre txiki bat marrazten zaigu harekin gogoratzen garen bakoitzean. Satorraren gorputz ttattarra irudikatzen dugu eta abenturatxoan parte hartzen duten beste animalien irudiaz. Buru gainean mokordo bat darama, kiratsaz beteriko txapel baten gisa eta adore handiz jakin nahi du nork egin dion “hori” bere burutxoan. Haurrak ere konturatzen dira satortxoaren duintasun urratuaz, baina batez ere, kaka kontuekin gozatzen dute. Animalia bakoitzak desberdin egiten du: zirina, gorotza, plastakada, mokordoa...

KONTAKETA

- Orriz orri aurkituko ditugu ipuinaren protagonistak eta behatuko dugu satorraren haserrea nola handitzen den gehiago eta gehiago.
- Animalia bakoitzak harriturik hartzen du satorraren etorria baita ondo ulertu ere haren haserrea. Bakoitzak emango dizkio bere azalpenak eta “berea” nolakoa den erakutsi.
- Etsipenak jota dago satortxo, mendekua ezin hartu. Baina euli jakintsuak adituak dira kaka-kontuetan.
- Azkenean, irakurle begiraleak ezagutuko du satorraren “hura” nolakoa den eta harro bere zuloan sartzen ikusiko dute.

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Testuak metatzen du ekintza kateatu bat, behin eta berriz errepikatzen diren esaldi sorta batekin batera, animalia bakoitzak bere xehetasunak ditu.
- Testua behin eta berriz errepikatu irudiak ikustearekin batera, buruz ikasteko, satortxoaren haserrea azpimarratuz.
- Kakak izen asko ditu euskaraz, horiek ezagutzeko bideak eskaini.
- Animalia bakoitzaren kakak ezaugarri bereziak ditu deskribatzeko.

PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Antzerki bat prestatu eta beste geletako haurrak ikustera gonbidatu.
- Kaka kontuak gustatzen bazaizkie, kaka inbentario bat egin daiteke, sail bakoitza deskribatu eta marrazkiak eginez edota plastilinaz lagunduta erakusketa bat antolatu.